

Txostena

Informe

**Euskal Sektore Publikoaren
Fundazioen Inbentarioa
2008ko abenduaren 31**

**Inventario de Fundaciones
del Sector Público Vasco
31 de diciembre de 2008**





AURKIBIDEA / ÍNDICE

LABURDUNAK	5
I. SARRERA.....	7
II. EAE-REN SEKTORE PUBLIKOA OSATZEN DUTEN FUNDAZIOAK.....	11
III. EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN GEHIENGO EKARPENAK DITUZTEN BESTE FUNDAZIO BATZUK	13
III.1 EA Eren Patronatu gehiengorik gabe	13
III.2 Foru esparruko fundazioak	15
III.3 Udalen esparruko fundazioak	17
III.4 EHUren fundazioak	18
III.5 Euskal Sektore Publikoko hainbat erakunderen gehiengo ekarpenak dituzten fundazioak	19
IV. PATRONATUA NAGUSIKI PUBLIKOA DUTEN FUNDAZIO PRIBATUAK	23
V. FINANTZAKETA PUBLIKO HANDIA DUTEN FUNDAZIO PRIBATUAK	27
VI. BESTELAKO FUNDAZIOAK	29
VII. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK.....	30
ALEGAZIOAK	31
ABREVIATURAS	49
I. INTRODUCCIÓN.....	51
II. FUNDACIONES DEL SECTOR PÚBLICO DE LA CAE	55
III. OTRAS FUNDACIONES CON APORTACIONES MAYORITARIAS DE LAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS VASCAS.....	57
III.1 Sin Patronato mayoritario de la CAE.....	57
III.2 Fundaciones del ámbito foral	59
III.3 Fundaciones del ámbito local	61
III.4 Fundaciones de la UPV	62
III.5 Fundaciones con aportación mayoritaria de varias entidades del Sector Público Vasco	63
IV. FUNDACIONES PRIVADAS CON PATRONATO MAYORITARIAMENTE PÚBLICO	67
V. FUNDACIONES PRIVADAS CON ALTO NIVEL DE	



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

FINANCIACIÓN PÚBLICA	71
VI. OTRAS FUNDACIONES	73
VII. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL	
INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	74
ANEXOS	
A.1 Fines fundacionales.....	75
A.1.1 Cultura	75
A.1.2 Medio ambiente, planificación territorial, agricultura y pesca	77
A.1.3 Sanidad y consumo.....	77
A.1.4 Educación, universidades e investigación	78
A.1.5 Industria, innovación, comercio y turismo	79
A.1.6 Empleo y asuntos sociales.....	80
ALEGACIONES	83

Vitoria-Gasteiz, 2012ko apirilaren 19a

Vitoria-Gasteiz, a 19 de abril de 2012



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURDURAK

ADM: Administratiboa

AIC: Automotive Intelligence Center

UDALA: Udala

UDALAK Udalak

B-B: Bilbao-Bizkaia

ONGIN: Ongintza

NORBAN.-MOZK.: Norbanakoen mozkina

EAE: Euskal Autonomia Erkidegoa

PARTZ. Partzuergoa

AFA Arabako Foru Aldundia

BFA Bizkaiko Foru Aldundia

GFA Gipuzkoako Foru Aldundia

EiTB: Euskal Irrati Telebista.

ESK: Eskola.

ESI: European Software Institute.

FUND: Fundazioa

NAZ: Nazioartekoa

GMI Bidasoako Garraio, Merkataritza eta Marketing Institutua Fundazioa

BATZ.: Batzordea

EAEONAL: Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-ogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legea

PROB.: Probintziakoa.

EH Euskal Herria

SA: Sozietate anonimoa

TRANSF: Transfusioak

HKEE Herri-Kontuen Euskal Epaitegia

UNED: Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala.

EHU: Euskal Herriko Unibertsitatea





I. SARRERA

Honako lan hau HKEEren 171988 Legeari jarraiki mamitu da eta Lan Plangintzan dago jasoa.

Honako lan honen helburua 2008ko abenduaren 31n Euskal Herriko fundazioak zehaztea da; horretarako aintzat hartuko da:

- erakunde publikoen partaidetza banaka hartuta gehiengoa izatea eta
- erakunde publikoen partaidetza banaka hartuta gutxiengoa izatea, baina osotasunean partaidetza gehiengoa egitea eta honenbestez, Euskal Sektore Publikoko publikotzat hartzen dira.

Euskal Herriko fundazioak honako hauek arautzen dituzte:

- euren estatutuek.
- 1271994 Legeak, ekainaren 17koa, Euskal Herriko Fundazioei buruzkoa.
- Euskal Herriko Ogasun Nagusiaren Printzipio Arautzaileen Legean jasotako erreferentziarako artikulua; 1/1997 Legegintzazko Dekretuak, azaroaren 11koa, onesten du testu bategina.
- 50/2002 Legea, abenduaren 26koa, Estatuko Fundazioei buruzkoa, lehenengo azken xedapenean aurreikusitako baldintzetan.
- 100/2007 Dekretua, ekainaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duena.
- 101/2007 Dekretua, ekainaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duena.

Fundazio bat sektore publiko batekoa den edo ez arautzen duen legeriari dagokionez, esan beharrean gaude ez dagoela sektore publikoaren kontzeptua izaera orokorrekin definituko duen inongo araurik; ez eta, noiz den sektore publikoko fundazioa; salbuespen da estatuko sektore publikokoak eta EAEren sektore publikokoak direnean.

2/2007 Legegintzazko Dekretuak, 2007ko azaroaren 6koa, Euskadiko Ondare Legearen testu bategina onesten duena, 23 bis artikulua gehitzen dio Euskal Herriko Ogasun Nagusiaren Printzipio Arautzaileen Legeari, 1/1997 Legegintzazko Dekretuak, azaroaren 11koa, onetsitako testu bategina.

“Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio izango dira beren patronatuko kide gehienak sektore publiko horretako erakundeek izendatuak dituztenak eta, horrez gainera, honako ezaugarrietako bat daukatenak:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak edo Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko gainerako erakundeek, zuzenean nahiz zeharka, gehiengoz egin duten ekarpen bati esker eratuta badaude.
- b) Beren fundazio-ondarea, ehuneko berrogeita hamarretik gorako portzentaje batean, aurreko idatz-zatian adierazitako erakundeek emandako edo utzitako ondasunez edo eskubidez eratuta badago modu iraunkorrean.

Estatuko Fundazioen 50/2002 Legeak, 44. artikuluan zera dio:

“Lege honen ondorioetarako, estatuko sektore publikoko fundazio izango dira ondotik zehaztutako ezaugarrietako bat daukaten fundazioak:

a) Estatuko Administrazio orokorrak, bere erakunde publikoek edo estatuko sektore publikoko gainerako erakundeek, zuzenean nahiz zeharka, gehiengoz egin duten ekarpen bati esker eratuta badaude.

b) Beren fundazio-ondarea, ehuneko berrogeita hamarretik gorako portzentaje batean, aurreko idatz-zatian adierazitako erakundeek emandako edo utzitako ondasunez edo eskubidez eratuta badago modu iraunkorren.

Ez foru sektore publikoko fundazioentzat, ez tokiko sektore publikoentzat ere berariazko arauketarik ez dagoenez gero, eta inbentario honen ondorioetarako soilik, Euskal Sektore Publikoko fundazio izango da gutxienez bi baldintza hauetatik bat betetzen badu:

a) Euskal Sektore Publikoak, HKEEren 1/1998 Legearen ondorioetarako definitutakoa, zuzenean nahiz zeharka, gehiengoz egin duen ekarpen bati esker eratuta badaude.

b) Beren fundazio-ondarea, ehuneko berrogeita hamarretik gorako portzentaje batean, aurreko idatz-zatian adierazitako erakundeek emandako edo utzitako ondasunez edo eskubidez eratuta badago modu iraunkorren.

Fundazio-ondarea modu iraunkorren zer den zehaztuko duen lege arautegirik ez dagoenez gero, txosten honen ondorioetarako, Kontabilitate Plan Orokorreko Ondare garbia kontzeptua baliatu dugu.

Metatutako emaitzak fundatzaileek Fundazioko diru-hornidurari egindako ekarpenen ehunekoarekin egotzi dira.

Zenbait kasutan ezin egotzi izan da Ondare garbia Fundazioan parte hartzen duten erakundeen artean, horretarako daturik ez izateagatik. Halakoetan, Fundazioaren ondare garbi guztiaren berri ematen da soilik.

Nolanahi den ere, gogoan izan behar da baliatu ditugun kontuak fundazioen % 23 inguruan soilik ikuskatu direla; eta 2007tik 2009ra bitarteko aldiak HKEEk Euskal Herriko Goi mailako Musika Ikastegirako Fundazio Pribatua, Bilboko Itsas adarra Itsas Museoa Fundazioa eta Guggenheim Fundazioa soilik fiskalizatu dituela; honenbestez, ezin ziurta dezakegu finantza egoerek akatsik ez izatea, kasuren batean sailkapena itxuralda dezaketena. Diru laguntzak, dohaintzak eta legatuak egoki egozteko bide emango digun xehetasunik ez dugunean, horiek izaera pribatukotzat hartu ditugu.

Irizpide hauek baliatuta, zerrenda osatu da eta bertan barne hartu dira:

- EAEren Sektore Publikoko Fundazioak: Herri-Ogasuntza Nagusiaren Antolarauak betetzen dituztenak.
- Beste fundazio batzuk, zeinetan euskal administrazio publikoek ekarpenak gehiengoz egin dituzten eta zeinetan aurrez aipatutako betekizunen bat betetzen den, bai



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

erakunde bakar baten ekarpen bidez (eta halakoetan foru esparruko, toki esparruko edo EHUren fundazioak bereizi dira) edo hainbat erakunderen ekarpen bidez, eta halakoetan Euskal Sektore Publikoko hainbat erakunderen partaidetza gehiengoa duten fundazio modura izendatu dira. Berebat, badira beste fundazio batzuk, non patronatuko kideak EAEren Sektore Publikoko erakundeen gehiengoz izendatuak izan ez diren; alabaina, dela hasierako ekarpena, dela ondarea, % 50ean baino gehiago sektore horretako erakundeek ekarri dute; horiek ere barne hartu ditugu.

Gainera, fundazio pribatuak jasotzen dituzten beste bi zerrenda barne hartu dira. Lehenengoan, adierazitako bi irizpideetarik bat ere betetzen ez duten fundazioak jaso dira; horietan, baina, patronatua gehiengoz Euskal Sektore Publikoko erakundeek izendatutako patroiek osatzen dute. Bigarrenean, 2008an diru-laguntza publikoen kopuru adierazgarria jaso zuten fundazio pribatuak barne hartu dira.

2008ko abenduaren 31n, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren datu basean 484 fundazio zeuden jasoak eta arestian aipatutako irizpideei jarraiki, horietatik 44 bereiz daitezke Euskal Sektore Publikoko fundazio modura.

Lana Erregistroak emandako informazioa abiaburu hartuta gauzatu da eta honenbestez, litekeena da beste fundazio batzuk izatea, bestelako erregistro autonomiko edo estatukoetan izen emandakoak eta Euskal Herriko fundazio publiko modura sailkatzeko baliatu ditugun irizpideak betetzen dituztenak; baita, izenean “Fundazio” hitza azaldu arren, fundazio modura erregistratuak ez daudenak ere.

Berebat, fundazio bakoitzaren informazioan izen-emate data adierazi dugu, eratze datarekin zertan bat etorri ez duena, baina izen-emate datatik aurrera hartzen dute nortasun juridikoa (12/1994 Legearen 5. artikulua).

Ondoko taulak berrikusketa ondoren egindako sailkapenaren laburpena jasotzen du:



Euroak milakotan		
FUNDAZIOA	KOPURUA	ONDARE GARBIA
		31.12.08
1. EA Eren sektore publikoa osatzen duten fundazioak.....	6	16.766
2. Gehiengoa duten EA Eren Adm. Publikoko fund., gehiengo patronaturik gabe	8	74.531
3. Fundazioak, zeinetan foru erakundeak nagusi diren	7	109.685
4. Fundazioak, zeinetan toki erakundeak nagusi diren.....	7	7.391
5. EHUren fundazioak	1	65
6. Euskal Sekt. Publikoko hainbat erakunderen gehiengo partaidetza duten fund.....	15	69.627
Euskal Sektore Publikoa osatzen duten fundazioak	44	278.065
7. Kontrol publikoa duten fundazio pribatuak	21	
8. Beste fundazio pribatu batzuk, finantzaketa publiko adierazgarria dutenak	20	
Fundazioak guztira	85	

Gainera, foru erakundeen ekarpena gehiengoa duten beste 5 fundazio eta Euskal Sektore Publikoko hainbat erakunderen gehiengo ekarpena duen beste 1 xehatu dira, Erregistroan 2008ko abenduaren 31 ondoren jasotakoak; beste fundazio bat ere jaso dugu, zeinaren Ondare garbia gehiengoz Estatuko Administrazio Orokorraren ekarpen bidez osatu den.

Fundazioak hobeto identifikatzeko taula guztietan bakoitzak Euskal Herriko Fundazioen Erregistroan duen kodea jaso da.



II. EAE-REN SEKTORE PUBLIKOKO FUNDAZIOAK

Ondotik zehaztutako fundazioek EAEONALaren 23 bis artikulua agintzen dituen betekizunak betetzen dituzte eta honenbestez, EA Eren Sektorre Publikokoak dira.

Sei kasuetan EA Eren Administrazio Orokorraren edo Sektorre Publikoko gainerako erakundeen gehiengo ekarpen bidez, zuzena nahiz zeharkakoa, eratu dira; gainera, patronatuetako kideen gehiengo sektore publiko horretako kide diren erakundeek izendatutakoak dira.

Euroak milakotan						
Fundazioa	Fundazioaren kodea	Izen-emate data	Erakundea	Patroi kopurua	Hasierako zuzkid.	Ondare garbia
1. Euskal Herriko Orkestra Gaztea	F-28	97/07/28	EA Eren Admin. Orok. Euskadiko Orkestra, SA	3 1	120 -	302 -
			GUZTIRA	4	120	302
2. Kalitatea	F-74.	99/07/20	EA Eren Admin. Orok. AFA BFA GFA	10 1 1 1	1.671 - - -	9.263 - - -
			GUZTIRA	13	1.671	9.263
3. Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioa (Elika)	F-97	01/03/29	EA Eren Admin. Orok. Neiker, SA Kalitatea Fund. Azti Fund.	6 1 1 1	- 132 132 132	- 50 50 50
			GUZTIRA	9	396	150
4. EH Goi mailako Musika Ikastegirako Fundazio Pribatua (Musikene)	F-101	01/07/11	EA Eren Admin. Orok. Euskadiko Orkestra, SA EHU Euskadiko Musika Artxibategia Pribatuak	12 1 1 1 2	1.797 - - - -	3.587 - - - -
			GUZTIRA	17	1.797	3.587
5. Berrikuntza+Ikerketa+Osasuna Euskal Fundazioa	F-132	21/02/03	Adm. Gral. CAE Osakidetza	3 2	60 -	3.144 -
			GUZTIRA	5	60	3.144
6. Euskadi Kirola	F-218	19/12/07	EA Eren Admin. Orok. EITB	3 2	6 6	160 160
			GUZTIRA	5	12	320



Patroiak eta Ondare garbia 2008ko abenduaren 31ri dagozkio; aldiz, Hasierako hornidura Fundazioen Erregistroan hasierako izen ematean jaso dagoen hura da.

Bai Euskadiko Orkestra, SA, bai Neiker, SA EA Eren sozietate publikoak dira.

Patroiak izendatzen dituen erakundeak sailkatzen ditu; horrela, bada, kasuren batean Eusko Jaurlaritzak Sektore Publikoarekin inongo loturarik ez duten pertsonak izenda ditzake, hala nola, Kalitatea Fundazioaren kasuan, non Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura gaietan eskumena duen Kontseilariak izakinen batzorde profesionaletako 4 kide izendatu dituen.

2009an ez du Erregistroan aipatu ditugun betekizunak betetzen dituen inongo Fundaziok izen eman.



III. EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN GEHIENGO EKARPENAK DITUZTEN BESTE FUNDAZIO BATZUK

III.1 EAE-REN GEHIENGO PATRONATU GABE

Ondotik zerrendatutako fundazioak ez dira EAEren Sektore Publikokoak, ez baitute honako baldintza hau betetzen: Patronatua gehiengoz EAEren Sektore Publikoko erakundeek izendatutako pertsonen osatua egotea. Ordea, kasu guztietan EAEren Administrazio Orokorraren gehiengo ekarpen bidez, zuzena nahiz zeharkakoa, eratu dira edo ondarea gehiengoz erakunde hauen ekarpen bidez osatu da.

Euroak milakotan

Fundazioa	Fundazioaren kodea	Izen-emate data	Erakundea	Patroi kopurua	Hasierako zuzkid.	Ondare garbia
1. José Miguel de Barandiarán	153	14/06/88	EAEn Admin. Orok.	1	-	134
			AFA	1	-	-
			BFA	1	-	-
			GFA	1	-	-
			Ataungo Udala	1	-	-
			Nafarroako Gobernua	1	-	-
			Pribatuak	5	48	56
			GUZTIRA	11	48	190
2. Oñatiko Lege- Soziologiako Nazioarteko Erakundea	GIP-42	21/03/90	EAEn Admin. Orok.	7	3	
			Pribatuak	7	-	
			GUZTIRA	14	3	518
3. Makina Erremintaren Heziketa Teknikoa	GIP-43	10/04/90	EAEn Admin. Orok.	4	2.095	3.484
			GFA	1	643	1.069
			Elgoibarko Udala	1	421	435
			Pribatuak	5	1.006	894
			GUZTIRA	11	4.165	5.882
4. Hobetuz- Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioa	F-24	24/03/97	EAEn Admin. Orok.	5	1.412	
			Pribatuak	7	-	
			GUZTIRA	12	1.412	2.065
5. Azti Fundazioa	F-38	22/12/97	Azti, SA	-	1.455	
			Neiker, SA	7	-	
			Pribatuak	7	60	
			GUZTIRA	14	1.515	16.497



Euroak milakotan						
Fundazioa	Fundazioaren kodea	Izen-emate data	Erakundea	Patroi kopurua	Hasierako zuzkid.	Ondare garbia
6. Labein	F-69	23/04/99	EAEn Admin. Orok.	2	2.634	
			EHU	3	-	
			BFA	1	-	
			Bilboko Udala	1	-	
			Pribatuak	13	2.370	
			GUZTIRA	20	5.004	46.234
7. Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroa – Gipuzkoa	F-137	28/02/03	EAEn Admin. Orok.	1	-	-
			Osakidetza	1	807	995
			GFA	1	-	-
			Pribatuak	1	-	-
			GUZTIRA	4	807	995
8. Ikerbasque	F-200	29/12/06	EAEn Admin. Orok.	4	100	
			Pribatuak	6	-	
			GUZTIRA	10	100	2.150

2008ko azaroaren 25ean Eusko Jaurlaritzak Gobernu Kontseiluaren Erabaki bitartez Ikerbasque-k EAEn sektore publikoko fundazio izaera gal zezan baimendu zuen.

Ez dago antzeko erabakirik Makina Erremintaren Heziketa Teknikoko Fundazioari, ez Azti Fundazioari dagokionez; izan ere, hauek EAEn Sektore Publikoko izateari utzi zioten Euskadiko Ondare Legea zaharberritu aurretik. Zerrendatutako gainerako fundazioek jarduerari ekin zioten EAEn Administrazioak patronatua gehiengoz izendatu gabe.

Jose Miguel de Barandiaran Fundazioan Fundazioak izendatutako lau patroi, harekin duten loturagatik, ez daude Fundazioen Erregistroan izen emanda.

Azti Fundazioari dagokionez azpimarratu behar da Neiker, SAK (EAEn Administrazio Orokorrak % 100ean partaidetutako sozietatea, Azti, SA bezalaxe) izendatutako patroietaik bik arrantzuaren sektorea ordezkatu behar dutela eta presidenteak kalitatezko botoa duela.

Gipuzkoa – Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroa Gipuzkoako Odol Bankuak eratu zuen eta antolamendua urtarrilaren 17ko 12/1989 Dekretuak arautzen du; dekretu horren indarrez, Odol eta Hemoderibatuen Euskal Autonomia Erkidegoko Bankuaren antolakuntza ezarri zen.

Labein Fundazioak 2010ean Cidemco, ESI, European Virtual Engineering, Fatronik, Inasmet, Leia, eta Robotiker fundazioak irentsi zituen eta Tecnalia Research and Innovation izen berria beretu zuen.



2009an ez du Erregistroan aipatu ditugun betekizunak betetzen dituen inongo Fundaziook izen eman.

III.2 FORU ESPARRUKO FUNDAZIOAK

Ondoko fundazioak hiru foru aldundietakoren batetik eratorritako gehiengo ekarpen bidez eratu dira edo fundazioaren ondarea aldundiren batek gehiengoz ekarrita:

Fundazioa	Fundazioaren kodea	Izen-emate data	Erakundea	Euroak milakotan		
				Patroi kopurua	Hasierako zuzkid.	Ondare garbia
1. Kirologi	F-61	27/11/98	GFA	6	30	428
			GUZTIRA	6	30	428
2. Bizkaia - Bizkaialde	F-89	17/10/00	BFA	4	30	427
			Pribatuak	1	-	-
			GUZTIRA	5	30	427
3. Arabako Artium	F-98	30/04/01	EA Eren Admin. Orok.	2	-	-
			AFA	5	180	51.422
			Vitoria-Gasteizko Udala	1	-	-
			Estatua	1	-	-
			Pribatuak	6	-	90
			GUZTIRA	15	180	51.512
4. Ekain	F-180	5/09/05	EA Eren Admin. Orok.	2	6	2.253
			GFA	2	6	5.688
			Zestoako Udala	1	6	3
			GUZTIRA	5	18	7.944



Euroak milakotan

Fundazioa	Fundazioaren kodea	Izen-emate data	Erakundea	Patroi kopurua	Hasierako zuzkid.	Ondare garbia
5. Álava Vive Deporte (Alvide)	F-203	31/01/07	AFA	4	30	97
			GUZTIRA	4	30	97
6. AIC	F-206	28/05/07	BFA	3	30	42.288
			Zornotzako Udala	1	30	6.195
			Ermuko Udala	1	30	77
			Pribatuak	6	180	464
			GUZTIRA	11	270	49.024
7. Juan Crisostomo de Arriaga-Bilbao Orkestra Sinfonikoa	F-223	04/03/08	BFA	2	24	
			Bilboko Udala	1	12	
			GUZTIRA	3	36	253

Artium Fundazioa hasiera batean gehiengoz AFAk izendatutako Patronatu batekin eratu zen.

2009an zehar foru aldundiek Erregistroan beste 5 fundazio jaso dituzte, aipatutako baldintzak betetzen dituztenak:

Euroak milakotan

Fundazioa	Fundazioaren kodea	Izen-emate data	Erakundea	Patroi kopurua	Hasierako zuzkid.
1. Añanako Gatz Harana	F-245	01/06/09	AFA	3	51
			GUZTIRA	3	51
2. Azkue	F-249	11/11/09	EA Eren Admin. Orok.	1	1
			BFA	5	6
			Pribatuak	1	1
			GUZTIRA	7	8
3. Biscaytik	F-236	27/01/09	BFA	4	1.000
			GUZTIRA	4	1.000



Euroak milakotan

Fundazioa	Fundazioaren kodea	Izen-emate data	Erakundea	Patroi kopurua	Hasierako zuzkid.	
4. Sueskola- Gipuzkoa	F-254	10/12/09	GFA	6	30	
			GUZTIRA	6	30	
5. Mintzola	F-250	12/11/09	EHU	1	1	
			GFA	4	26	
			Villabonako Udala	1	1	
			Pribatuak	1	2	
			GUZTIRA	7	30	

III.3 UDALEN ESPARRUKO FUNDAZIOAK

Ondoko fundazioak gehiengo ekarpen bitartez eratu dira edo horien ondarea gehiengoz tokiko entitate publiko baten ekarpen bidez osatu da.

Euroak milakotan

Fundazioa	Fundazioaren kodea	Izen-emate data	Erakundea	Patroi kopurua	Hasierako zuzkid.	Ondare garbia
1. Urola Garaiko Fundazioa	F-27	22/07/97	Urolako Mankomunitatea	6	1.240	
			Pribatuak	3	2	
			GUZTIRA	9	1.242	2.783
2. Lenbur	F-67	07/04/99	Legazpiko Udala	3	744	
			Ezkio Itsasoko Udala	1	-	
			Pribatuak	7	120	
			GUZTIRA	11	864	4.978
3. Bilbao Arte	F-113	26/02/02	Bilboko Udala	5	12	252
			GUZTIRA	5	12	252
4. Zerain Dezagun	F-142	10/06/03	Zeraingo Udala	3	61	50
			Pribatuak	2	-	-
			GUZTIRA	5	61	50



Euroak milakotan

Fundazioa	Fundazioaren kodea	Izen-emate data	Erakundea	Patroi kopurua	Hasierako zuzkid.	Ondare garbia
5. Loiola Gizarte Baliabideen Zentroa	F-145	17/06/03	Azpeitia Lantzen, SA	3	9	4
			GUZTIRA	3	9	(*)4
6. Ficoba	F-159	4/03/04	Irungo Udala	3	31	
			Bidasoako Erakustazoka, SA	1	31	
			Donostiako Udala	1	31	
			GUZTIRA	5	93	(697)
7. Tolosa 750. urteurrena	F-166	17/06/04	Tolosako Udala	5	40	21
			GUZTIRA	5	40	(**)21

(*) 2006ko ekitaldiari dagozkion datuak

(**) 2007ko ekitaldiari dagozkion datuak

2009ko irailaren 30eko Agindu bidez, Tolosa 750 Urteurrena Fundazioa desegitea onartu zen.

Bidasoako Erakustazoka, SA % 99an baino gehiago Irungo Udalak partaidetzen du.

III.4 EHU-REN FUNDAZIOAK

Honako fundazio hau EHUren gehiengo ekarpen bidez eratu da:

Euroak milakotan

Fundazioa	Fundazioaren kodea	Izen-emate data	Erakundea	Patroi kopurua	Hasierako zuzkid.	Ondare garbia
1. EHUren udako ikastaroak	GIP-49	18/03/94	EHU	15	30	65
			Pribatua	1	-	-
			GUZTIRA	16	30	65



III.5 EUSKAL SEKTORE PUBLIKOKO HAINBAT ERAKUNDEREN GEHIENGO EKARPENAK DITUZTEN FUNDAZIOAK

Ondoko fundazioak gehiengo ekarpen bitartez eratu dira edo horien ondarea gehiengoz tokiko entitate publiko baten ekarpen bidez osatu da.

Euroak milakotan						
Fundazioa	Fundazioaren kodea	Izen-emate data	Erakundea	Patroi kopurua	Hasierako zuzkid.	Ondare garbia
1. Briñas	B-37	d/g	BFA	1	6	
			Bilboko Udala	1	6	
			Pribatuak	2	-	
			GUZTIRA	4	12	d/g
2. Unibertsitatea Enpresa Ikerketa (Euskoiker)	BIZ-68	17/04/85	EHU	6	-	459
			AFA	1	-	77
			BFA	1	-	77
			GFA	1	-	77
			Pribatuak	3	-	229
			GUZTIRA	12	-	919
3. UNED-Bizkaia Zentro Elkartua	BIZ-72	14/05/90	Santurtziko Udala	2	48	338
			Sestaoko Udala	2	-	-
			Trapagarango Udala	1	48	338
			Portugaleteko Udala	2	48	338
			Ortuellako Udala	1	48	338
			Abanto-Zierbenako Udala	1	48	338
			GUZTIRA	9	240	1.690
4. Altzaragintza	F-10	03/03/96	Azpeitiko Udala	1	1	
			Azkoitiko Udala	1	1	
			Zestoako Udala	1	-	
			Pribatuak	2	1	
			GUZTIRA	5	3	(*0)



Euroak milakotan

Fundazioa	Fundazioaren kodea	Izen-emate data	Erakundea	Patroi kopurua	Hasierako zuzkid.	Ondare garbia
5. Guggenheim Bilbao Museoa	F-17	11/12/96	EA Eren Admin. Orok.	1	285	-
			EiTB	1	-	-
			BFA	1	285	-
			Bilboko Udala	1	-	-
			Metro Bilbao, SA	1	-	-
			Pribatuak	29	-	-
			GUZTIRA	34	570	3.292
6. UNED-Bergara	F-66	7/04/99	GFA	3	-	-
			Bergarako Udala	1	-	-
			UNED	2	-	-
			Pribatuak	1	-	-
			GUZTIRA	7	-	464
7. Donostia Intern. Physics Center	F-72	22/06/99	EA Eren Admin. Orok.	6	18	-
			EHU	2	-	-
			GFA	3	6	-
			Donostiako Udala	1	6	-
			Pribatuak	7	6	-
			GUZTIRA	19	36	7.206
8. Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa	F-73	02/07/99	Portuko Agintaritza	1	-	114
			BFA	1	-	3.264
			Bilboko Udala	1	-	509
			EA Eren Admin. Orok.	-	-	3.349
			Estatua	-	-	3.838
			Pribatuak	1	1.730	1.828
			GUZTIRA	4	1.730	12.902



Euroak milakotan

Fundazioa	Fundazioaren kodea	Izen-emate data	Erakundea	Patroi kopurua	Hasierako zuzkid.	Ondare garbia
9. Santa Maria Katedrala	F-75	28/10/99	AFA	1	12	
			Vitoria-Gasteizko Udala	1	12	
			Pribatuak	1	6	
			GUZTIRA	3	30	9.444
10. Bilbao 700 – III Milenium	F-77	14/03/00	EA Eren Admin. Orok.	1	-	-
			BFA	1	-	-
			Bilboko Udala	1	169	271
			Bilboko Portuko Agintaritza	1	30	48
			B-B Uren Partzuergoa	1	60	96
			Bilbao Ria 2000, SA	1	44	71
			Bilboko Nazioart. Erak.	1	12	19
			Metro Bilbao, SA	1	60	96
			Pribatua	9	349	561
GUZTIRA	17	724	1.162			
11. Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa	F-96	29/03/01	EA Eren Admin. Orok.	1	30	-
			EiTB	1	-	-
			Metro Bilbao, SA	1	-	-
			BFA	1	30	-
			Bilboko Udala	1	30	-
			Pribatuak	7	-	-
			GUZTIRA	12	90	27.777
12. Gernikako Bakearen Museoa	F-162	3/05/04	EA Eren Admin. Orok.	3	6	81
			BFA	3	6	81
			Gernikako Udala	3	6	81
			GUZTIRA	9	18	243
13. Euskal Filmatagia	F-178	27/05/05	EA Eren Admin. Orok.	2	6	
			GFA	2	6	
			AFA	1	-	
			Pribatua	1	6	
			GUZTIRA	6	18	3.033



Euroak milakotan

Fundazioa	Fundazioaren kodea	Izen-emate data	Erakundea	Patroi kopurua	Hasierako zuzkid.	Ondare garbia
14. Ingurugiro Etxea	F-209	10/07/07	Azpeitiko Udala	6	13	18
			Azkoitiko Udala	1	5	7
			Pribatuak	2	12	16
			GUZTIRA	9	30	41
15. Euskal Herriko Gastronomia Kulturaren Etxea Sukal Leku	F-217	19/12/07	EAeren Admin. Orok.	2	18	700
			Kalitatea Fundazioa	1	-	-
			Leioako Ostalaritza Eskola	1	-	-
			GFA	1	18	700
			Donostiako Udala	1	18	18
			Pribatuak	5	2	162
			GUZTIRA	11	56	1.580

(*) 2007ko ekitaldiari dagozkion datuak
d/g: Daturik gabe

Unibertsitatea-Enpresa Ikerketa Fundazioa (Euskoiker) 360 euroko gizarte funtsarekin eratu zen eta horietatik EHUK 180 euro jarri zituen eta hiru aldundiek 30na euro.

Hasiera batean, Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioaren Patronatua oso-osorik Sektore Publikoko erakundeek osatzen zuten.

Eratu zen unean International Physics Center Donostiako Patronatua 10 bokalek osatzen zuten eta horietatik 7 Eusko Jaurlaritzak eta EHUK izendatu zituzten.

UNED – Bergara fundazioaren zuzkidurari ekarpenik egin gabe eratu zen.

Briñas Fundazioak ez du gaur egun inongo jarduerarik eta dagoen azken agiria 1989koa da.

Altzaragintza Fundazioak Fundazioen Erregistroaren aurrean desagiteko eskritura publikoa aurkeztu zuen eta hilabeteko epean zuzendu beharreko hainbat irizpen agindu zitzaizkion; ordea, ez dira horiek oraino ebatzi.

2009an Erregistroan honako Fundazio honek eman du izena:

Euroak milakotan

Fundazioa	Fundazioaren kodea	Izen-emate data	Erakundea	Patroi kopurua	Hasierako zuzkid.	Ondare garbia
1. Cristina Enea	F-252	14/12/09	GFA	1	60	-
			Donostiako Udala	5	60	556
			Pribatuak	1	-	-
			GUZTIRA	7	120	556



IV. PATRONATUA NAGUSIKI PUBLIKOA DUTEN FUNDAZIO PRIBATUAK

Ondotik zerrendatuko ditugun fundazioek ez dituzte txosten honetan Sektore Publikoko fundaziotzat hartzeko baliatu ditugun bi irizpideetatik bat ere betetzen, baina Patronatua nagusiki entitate publikoek izendatutako pertsonak osatzen dute.

Fundazioa	Fundazioaren kodea	Izen-emate data	Erakundea	Euroak milakotan		
				Patroi kopurua	Hasierako zuzkid.	Ondare garbia
1. Andra Mari Eskola	ARA-02	d/g	Okendoko Udala	1	-	-
			Pribatua	-	1	-
			GUZTIRA	1	1	d/g
2. Solana Peña Eskolak	BIZ-36	d/g	EAeren Admin. Orok.	1	-	-
			Pribatua	-	1	-
			GUZTIRA	1	1	d/g
3. Matias Isasi	A-11	d/g	EAeren Admin. Orok.	1	-	-
			Pribatuak	-	1	-
			GUZTIRA	1	1	d/g
4. Francisco de Cerio	A-27	d/g	Cerioko Adm. Batz.	2	-	-
			Pribatuak	1	1	-
			GUZTIRA	3	1	d/g
5. Zorroagako Patronatua	G-15	d/g	Donostiako Udala	9	-	-
			Pribatuak	2	1	-
			GUZTIRA	11	1	(*)23.736
6. Biteri	GIP-23	d/g	EAeren Admin. Orok.	1	-	-
			GFA	1	-	-
			Estatua	1	-	-
			Pribatua	-	1	-
			GUZTIRA	3	1	d/g
7. Libano Ondiz Eskola	BIZ-57	d/g	Leioako Udala	2	-	-
			Pribatua	1	1	-
			GUZTIRA	3	1	d/g



Euroak milakotan

Fundazioa	Fundazioaren kodea	Izen-emate data	Erakundea	Patroi kopurua	Hasierako zuzkid.	Ondare garbia
8. Juan Bautista Zabala	B-11	d/g	Getxoko Udala	3	-	-
			Pribatua	-	1	-
			GUZTIRA	3	1	d/g
9. Manuel Calvo	B-20	d/g	Portugaleteko Udala	2	-	-
			Pribatuak	1	1	224
			GUZTIRA	3	1	224
10. Agregación de Fundaciones Para fines Benéfico y Dotales de la Provincia de Bizkaia	B-25	d/g	EAEn Admin. Orok.	1	-	-
			Pribatuak	-	1	-
			GUZTIRA	1	1	d/g
11. Agregación de Fundaciones Benef-Partic. de la Provincia de Gipuzkoa- Loiola	G-12	d/g	EAEn Admin. Orok.	1	-	-
			Pribatuak	-	1	-
			GUZTIRA	1	1	d/g
12. Agregación de Fundaciones Benef-Partic. de la Provincia de Álava	A-61	d/g	EAEn Admin. Orok.	1	-	-
			Pribatuak	-	1	-
			GUZTIRA	1	1	d/g
13. Goierriko Herrien Ekintza	GIP-40	19/05/87	Goierriko Udalak	18	-	-
			Pribatuak	14	1.980	-
			GUZTIRA	32	1.980	11.784
14. Troconiz - Santacoloma	BIZ-71	4/06/87	Portugaleteko Udala	2	-	-
			Pribatuak	1	17	602
			GUZTIRA	3	17	602
15. ikaslan Prestakuntza Zentroa	GIP-46	5/05/1992	Goierriko Udalak	18	-	-
			Pribatuak	15	144	-
			GUZTIRA	33	144	4.827
16. Medikuntza eta Zientzia Historiaren Euskal Museoa	182	15/02/95	EHU	5	3	5
			BFA	1	-	-
			Pribatuak	5	570	598
			GUZTIRA	11	573	603



Euroak milakotan

Fundazioa	Fundazioaren kodea	Izen-emate data	Erakundea	Patroi kopurua	Hasierako zuzkid.	Ondare garbia
17. Gernika Gogoratuz	F-03	25/09/95	EA Eren Admin. Orok.	2	-	-
			EHU	1	-	-
			Gernikako Udala	2	-	60
			Pribatuak	4	80	93
			GUZTIRA	9	80	153
18. Isidro Legorburu Lizarralde	F-104	06/08/01	Antzuolako Udala	3	-	-
			Pribatuak	1	245	-
			GUZTIRA	4	245	d/g
19. Arangoiti	F-199	29/12/06	Beasaingo Udala	3	-	-
			GFA	-	-	434
			Pribatuak	2	2.809	3.709
			GUZTIRA	5	2.809	(*)4.143
20. Antonio Oteiza	F-219	29/01/08	Azkoitiko Udala	5	60	59
			Pribatuak	4	659	646
			GUZTIRA	9	719	705
21. León Trucios	F-229	22/09/08	Balmasedako Udala	2	-	-
			Pribatuak	1	6.465	-
			GUZTIRA	3	6.465	d/g:

(*) 2007ko ekitaldiari dagozkion datuak

d/g: Daturik gabe

Medikuntza eta Zientzia Historiaren Museoa Fundazioaren Patronatua hasirako Patronatua da, izan ere Fundazioak berak jakinarazitakoa (EHUren 4 bokal, BFAren 1 eta 7 pribatu) ez dago Fundazioen Erregistroan inskribatua eta ez da formalki horren aldaketa ere jakinarazi.

Zorroaga Patronatua Fundazioa atal honetan sailkatu dugu, bere ondarea publikotzat jotzeko horren bilakaeraren azterketa sakonagoa egin beharko litzateke-eta. 1992an Gizarte Funtsa diferentzia bidez kalkulatu zen eta 8,3 milioi euroan ezarri.

Santa Maria Eskola, Solana Peña Eskolak, Matías Isasi, Francisco de Cerio, Biteri, Líbano Ondiz eta Juan Bautista Zabala fundazioek, Erregistroan eskura dagoen informazioaren arabera, ez dute jarduerarik eta ez dago erasota desegiteko izapideak abian jarri direnik.



Goierriko Herrien Ekintza Fundazioa kultur elkarte batek sortu zuen eta ez dakigu zein duen jatorria. Fundazio honek aldi berean Ikaslan Prestakuntza Zentroa izenekoak sortu zuen.



V. FINANTZAKETA PUBLIKO HANDIA DUTEN FUNDAZIO PRIBATUAK

Lanean zehar eta fundazioei egindako zirkularizazioaren eta Fundazioen Erregistroak eskuratutako informazioaren ondorioz, eta datu hauek 2008ko kontabilitatearekin –bai EAEren Administrazio Orokorrekoa, bai hiru foru aldundiena- alderatu izanaren ondorioz, aurretik barne hartu gabe zeuden hainbat fundaziok ekitaldi horretan Euskal Sektore Publikotik finantzaketa jaso zutela ikusi dugu, euren sarrerren gehi Ondare garbiaren bariazioaren guztizkoaren gainean % 70 baino gehiago egiten duena.

Diru-laguntza arrunt eta kapitaleko modura ageri diren kopuruak EAEren Administrazio Orokorren eta hiru aldundien aurrekontuko likidazioetatik eskuratutakoak dira; Bestelako diru-laguntzak atalean jaso diren kopuruak, berriz, fundazioek Erregistroan aurkeztutako kontuetatik edo gure zirkularizazioari emandako erantzunetatik eskuratutakoak dira.

Fundazioa	Fundazioaren kodea	Diru-lag. arrunta	Kapital diru-lag.	Bestelako diru-lag.	Euroak milakotan	
					Sarrerak guztira	Ondare garb. hazkundera
1. Jesús Obrero Ongintza-irakaskuntzako fundazioa	ARA-36	7.290	354	-	10.034	(308)
2. Ibaigane	BIZ-65	2.133	-	-	2.718	1
3. Arabako adimen urriko elkart. tutoretza - Usoa	G-20 A-60	176 89	- 1	4 -	189 117	17 (1)
4. Ntra. Señora de la Merced zaharren egoitza	G-08	843	592	50	899	379
5. Gipuzkoako adimen urriko elkart. tutoretza- Atzegi.	G-20	176	-	4	189	17
6. Larratxo	G-30	1.820	-	-	968	(11)
7. Emaus Gizarte Fundazioa	F-08	3.768	43	366	4.073	217
8. Arabako buruko gaitza duten pertsonentzako tutoretza fundazioa-Beroa	F-16	240	-	-	268	41
9. Haurtzarora, Gazteria eta Familia babesteko euskal fundazioa (Haurralde)	F-26	505	75	232	788	10
10. Kulturaren Berrikuntza Soziala, FISC	F-41	513	1.061	2	1.799	71
11. Butrongo Plasentia Museoa	F-51	-	-	25	29	6
12. Energia Alternatiboen Kooperaziozko Ikerketa Zentroa (Cic Energi Gune)	F-59	-	820	-	562	162



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Fundazioa	Fundazioaren kodea	Diru-lag. arrunta	Kapital diru-lag.	Bestelako diru-lag.	Euroak milakotan	
					Sarrerak guztira	Ondare garb. hazkundera
13. ITC	F-71	426	-	163	480	89
14. Bagabiltza	F-79	696	-	10	763	79
15. Eduardo Chillida eta Pilar Belzunce	F-92	272	9	81	466	(115)
16. Aldauri	F-119	271	-	311	596	(21)
17. Oiartzo Batxilergo Ikastola	F-148	424	2	-	578	-
18. Inbertsioa eta Aurrezki Arduratsua	F-149	134	-	18	214	(71)
19. Jose Unanue	F-186	40	-	-	40	17
20. Zadorra	F-191	85	-	-	104	7



VI. BESTELAKO FUNDAZIOAK

Lana egiterakoan bi fundazio atzeman ditugu, zeinetan Ondare garbia nagusiki euskal administrazio publikoetatik eta Estatuko Administrazio Orokorretik jasotako diru-laguntzek osatzen duten:

Fundazioa	Fundazioaren kodea	Izen-emate data	Erakundea	Euroak milakotan		
				Patroi kopurua	Hasierako zuzkid.	Ondare garbia
1. Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa	F-106	-	EA Eren Admin. Orok.	1	-	176
			BFA	-	-	800
			Abanto-Zierbenako Udala	3	6	118
			Estatuaren Adm. Orok.	-	-	1.000
			Pribatuak	6	6	601
			GUZTIRA	10	12	2.695

Antzeko egoera bizi du Cristobal Balenciaga Museoa Fundazioak, zeinaren Ondare garbia 2010az geroztik nagusiki estatuarena den.

VII. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan lanean zehar azaleratu zaizkigun hainbat alderdi jasoko ditugu, fundazioen gaineko kontrola eragiten dutenak.

Erregistroa

- 4 kasutan atzeman dugu zenbait fundazioen patronatuan aldaketak jasotzea denboran luze atzeratzen dela. Atzeraldi hauek bai Erregistroak fundazioari erantzuna emateko orduan, bai izen ematea gauzatzeko eskatutako dokumentazio osagarriaren entrega ezean gertatzen dira.
- Honi dagokionez, urteko kontuak aurkeztean ikusi dugu zenbait fundazio Erregistroan jasotakoaz besteko patronatuarekin ari dela lanean, bai aurrez aipatutako izen ematean atzeraldiak daudelako, bai fundazioen euren aldetik aldaketen berri ematen ez delako.
- Aztertu ditugun kasuetatik 10etan Fundazioen Erregistroak ez du erregistro fitxarik dagozkion fundazioen izenean.
- Beste 3 kasutan, ez zegoen fundazioari buruzko inongo dokumentaziorik. Aspalditxo sortutako fundazioak dira eta ez dakigu funtzionamenduan dauden edo ez. Jakin badakigu Erregistroa fundazioen gaineko informazioa berraztertzen ari dela; ezinbestekoa da lan horri jarraipena ematea.
- Zenbait fundaziok ez dituzte urteko kontuak Erregistroan aurkezten eta ez dago jasota aurkezteko eskatzen zaienik. Horren gainean gogora ekarri behar da obligazio honez gain, fundazioek Erregistroan ahalordeen emakida inskribatu behar dutela.

Informazio Orokorra

- Fundazioa gehiengo ekarpenarekin eratu duten edota euren ondarrera % 50 edo gehiagoko ondasun edo eskubideak ekarri dituzten entitate publikoek urteko kontuetan fundazio horiei buruzko datuak jaso behar lituzkete.

Legeria

- Gai honetan eskumena duten erakundeek irizpideak arautu eta garatu behar lituzkete fundazio bat dagokion Sektore Publikoan jasotzeko.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAREN FUNDAZIOEN 2008-KO ABENDUAREN 31-KO INBENTARIOAREN FISKALIZAZIOAREN EMAITZEI JARRITAKO ALEGAZIOAK.

ORDIZIAKO UDALA

Igorritako dokumentazioa aztertu ondoren, ongintza-irakaskuntzako “Victor Mendizabal” Fundazioa, 1943an eratu zena, Zerrendan jaso gabe dagoela egiaztatu dugu.

Honenbestez, honekin batera fundazio horren eratze eskrituraren kopia igortzen dugu, Euskal Sektore Publikoaren fundazioen Inbentarioan barne har dezazuen¹

¹ Aipatutako fundazioa ez dago Fundazioen Erregistroan izen emanda

MANUEL CALVO FUNDAZIOA

ADIERAZTEN DU,

Idatzi honen bidez, fundazioen sailkapenean aitortu zaion tokia aldatzeko zioak emango dituela, fundazio hau idazpuru horretan barne hartzeari dagokionez, eta une honetatik beretik jakinarazten duela sailkapena ez dela egokia eta horretarako aurkezten dituela honako

ALEGAZIOAK

Lehena: Manuel Calvo Fundazioa izaera pribatuko fundazioa da; horren sortzailea pertsona fisikoa izan zen, On Manuel Calvo eta Agirre, eta berak ekarri zuen fundazioak duen fundazio-ondarea osorik.

Honenbestez, txostenaren testuak argi asko erakutsi duenez, ez fundazioa, ez bertako patronatua, ez dute sektore publikoak lagatako ondasunek osatzen.

Bigarrena: Fundazio honen “patronatua nagusiki publikoa duen fundazioa” delako adierazpenari dagokionez, halakorik ez dagoela esan behar da.

Izan ere, patronatua Portugaleteko udalean kargu jakin batzuk dituzten pertsonak osatzen duten arren, hala nola, alkateak eta zinegotzi ordezkariak (Gizarte Ongizatekoa izan ohi da), patroik kargu hori betetzea ez da ez kargu publikoaren jarraipena eta ez dago kargu publikoak berekin dituen egitekoen barruan jasoa.

Kargua patronatua osatzeko baliatzen da baina izendapena ez da haien kargu publikoaren aribidean gauzatzen.

Bada, izendapen molde hutsa baizik ez da, patronatuan izendatu eta integratuak izan ondoren (onartu eta gero) karguak pertsona fisiko eta aske modura beteko dituztenak eta izaera horrekin beteko dituzte euren egitekoak gobernu atal honetan.

Izendapen molde honek fundazioaren jarraipena bermatzeaz gain, karguak ere berrituko direla bermatzen du, izan ere, horiek askeak izateak patronatu barruan botere-multzoak sortzea saihesten du, e.a. eta gainera, fundatzaileak hautatu zuen.

Baina ez da inondik ere Portugaleteko Udalaren aldetik fundazioa kontrolatzeko sistema izan ez eta halako bihurtu ere.

Hirugarrena: Fundazio honetan alkate den aldetik patronatuan sartzen den pertsonak ez du Portugaleteko Udalaren aurrean bere jardueraren gaineko konturik aitortzeko obligaziorik; Zinegotzi-ordezkariak bai, ordea.

Estatutuek agintzen dute zinegotzi-ordezkariak izendatu duen udalari kontuak aitortuko dizkiola; egin duen kudeaketa edo jardueraren berri emango dio, ez du horrek esan nahi baina, Fundazioak udalari kontuak aitortu behar dizkionik.

Udalak izatez, ez dezake fundazio honen gobernu-organuaren gainean inongo kontrolirik izan, ezta fundazioaren beraren gainean ere. Fundazio pribatua eta askea da.

Laugarrena. Honegatik guztiagatik, patronatua nagusiki publikoa duten fundazio pribatuen zerrendatik kendu behar da.



TROCONIZ SANTACOLOMA FUNDAZIOA

ADIERAZTEN DU,

Idatzi honen bidez, alegazioak aurkezteko eman zaidan aukera baliatuko dut, fundazio hau idazpuru horretan barne hartzeari dagokionez, eta une honetatik beretik jakinarazten duela sailkapena ez dela egokia eta horretarako aurkezten dituela honako

ALEGAZIOAK

Lehenik: Troconiz Santacoloma Fundazioa izaera pribatuko fundazioa da; horren sortzailea pertsona fisikoa izan zen, Filomena Troconiz Santacoloma andrea, eta berak ekarri zuen fundazioak duen fundazio-ondarea osorik.

Honenbestez, txostenaren testuak argi asko erakutsi duenez, ez fundazioa, ez bertako patronatua, ez dute sektore publikoak lagatako ondasunek osatzen.

Bigarrena: Fundazio honen “patronatua nagusiki publikoa duen fundazioa” delako adierazpenari dagokionez, halakorik ez dagoela esan behar da.

Izan ere, patronatua Portugaleteko Udalean kargu jakin batzuk dituzten pertsonen osatzen duten arren, hala nola, alkateak eta Hezkuntza zinegotziak, patroik kargu hori betetzea ez da ez kargu publikoaren jarraipena eta ez dago kargu publikoak berekin dituen egitekoen barruan jasoa.

Kargua patronatua osatzeko baliatzen da baina izendapena ez da haien kargu publikoaren aribidean gauzatzen.

Bada, izendapen molde hutsa baizik ez da, patronatuan izendatu eta integratuak izan ondoren (onartu eta gero) karguak pertsona fisiko eta aske modura beteko dituztenak eta izaera horrekin beteko dituzte euren egitekoak gobernu atal honetan.

Izendapen molde honek fundazioaren jarraipena bermatzeaz gain, karguak ere berrituko direla bermatzen du, izan ere, horiek askeak izateak patronatu barruan botere-multzoak sortzea saihesten du, e.a. eta gainera, fundatzaileak hautatu zuen.

Baina ez da inondik ere Portugaleteko Udalaren aldetik fundazioa kontrolatzeko sistema izan ez eta halako bihurtu ere.

Hirugarrena: Patronatuko inongo kidek ez du Portugaleteko Udalaren aurrean bere jardueraren gaineko konturik aitortzeko obligaziorik.

Udalak ez dezake fundazio honen gobernu-organuaren gainean inongo kontrolik izan, ezta fundazioaren beraren gainean ere. Fundazio pribatua eta askea da.

Laugarrena. Honegatik guztiagatik, patronatua nagusiki publikoa duten fundazio pribatuen zerrendatik kendu behar da.

AZTI FUNDAZIOA

1.- Inbentarioan ageri diren AZTI Fundazioaren datuak zuzenak dira eta Epaitegi horri 2010eko uztailaren 13an igorri genizkion datuekin bat datoz, 2010eko maiatzaren 12an egin zitzaigun eskariari erantzun emanez.

2.- Nolanahi den ere, 2008ko abenduaren 31z geroztik honako aldaketa hauek izan dira:

- Estatutuak aldatzeko eskrituraren arabera, 1.047 zk., 2009ko uztailaren 14koa, AZTI Fundazioaren Patronatuak ekainaren 19an bere estatutuen hainbat artikulua aldatzea onartu zuen, besteak beste, 11. artikulua; hona hemen idazkera berriak zer dioen: Patronatuko kideak ondotik adierazitako moduan hautatuko dira: horietako zazpi (7) Eusko Jaurlaritzan arrantzu gaietan eskumena duen saileko pertsona arduradunak berariaz izendatuta...” “Gainerako zazpiak (7) TEKNOLOGIA ETA IKERKETA ZENTRUA, SLren administrazio-kontseiluak berariaz izendatuta, sortzaile den aldetik...”
- 2010eko abenduaren 31n Fundazioaren auditatutako ondare garbia: 16.650 mila euro.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

KIROLGI FUNDAZIOA

Idatzi honen bitartez Herri-Kontuen Euskal Epaitegi horrek mamitutako Euskal Sektore Publikoko Fundazioen Inbentarioa 2008ko abenduaren 31n txostenean Kirol Fundazio honi dagozkion datuetan atzeman dugun errore baten berri eman nahi dugu.

Errorea agiriaren 12. orrialdean dago eta zera da: aipatutako datan patroï kopurua ez zen 6koa, 14koa baizik, honako banaketa honekin²:

Gipuzkoako Foru Aldundia	6
Batzarkide taldeak	5
Pribatuak	3

² La composición del Patronato citado por la Fundación no fue inscrito en el Registro de Fundaciones hasta el 1 de octubre de 2009.

AIC FUNDAZIOA

Atarikoak.-Egindako alegazioan laburpena

Alegazio hauen helburua da Automotive Intelligence Center Fundazioari (aurrerantzean AIC Fundazioa) eman zaion foru sektore publikoko fundazio kalifikazioa indargabetzea; kalifikazioa Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE) mamitutako “Euskal Sektore Publikoko Fundazioen Inbentarioa 2008ko abenduaren 31n” izeneko txostenean jaso du, guri iritsarazi zaiguna.

Kalifikazio hau, idatziak dioenaren arabera, estatuko fundazioen legean ezartzen diren betekizunak analogiaz aplikatuz eratorri da. Hona hemen betekizunak zein diren: gehien bat sektore publikoaren ekarpen bidez eratutako fundazioak izatea, edo (ii) fundazio-ondarea, irauteko asmoarekin, % 50 baino gehiago erakunde publikoek emandako ondasun edo eskubideez osatua egotea.

Alabaina, HKEEk ondorioztatu duena, errespetu osoz, ez da zuzena, ondoko arrazoi hauengatik:

- (i) Estatuko legerian ezarritako betekizunak ezargarriak balira -eta ez dira- sektore publikoko fundazio baten aurrean geundeke, honako arrazoi hauengatik:
 - a) AIC Fundazioa ez zen *gehien bat sektore publikoaren ekarpenekin eratu*, sektore pribatukoekin baina.
 - b) *fundazio-ondarea* ere, irauteko asmoarekin, ez dago % 50 baino gehiago erakunde publikoek emandako ondasun edo eskubideez osatua.
 - c) Azkenik, *patroiak ere* ez dituzte nagusiki erakunde publikoek izendatu, baizik eta enpresa pribatuek.

Honegatik guztiagatik, AIC Fundazioa, HKEE arautzen duen legearen 2.1 artikulua arabera fiskalizazio-gai izatea alde batera (eta ez da hori inongo unetan ukatu), ez daiteke orokorrean Euskal Sektore Publikoko fundazio modura sailkatu, ezta bereziki foru sektore publikokoa ere eta honenbestez, HKEEk egindako Inbentarioz kanpo utzi behar da.

Arrazonamendu hauek xehetasunez azalduko ditugu ondoko ataletan.

AIC FUNDAZIOA ETA ESTATUKO FUNDAZIOEI BURUZKO 50/2002 LEGEAREN 44. ARTIKULUAK EZARTZEN DITUEN BETEKIZUNAK

Aztertu beharra dago ea 50/2002 Legearen 44. artikulua estatuko fundazioentzat ezartzen dituen baldintzak AICren kasuan betetzen diren; aurrez esan behar dugu erantzuna ezezkoa dela. Honenbestez, nahiz betekizun hauek AICri ezargarriak balitzaizkio ere Euskal sektore publikoko fundazio izaera duen edo ez zehazteko, ondorioa da horietatik bat bera ere ez dela betetzen aztertutako kasuan eta honenbestez, ildo honi jarraiki ere ez gaudela fundazio publiko baten aurrean.

Inbentarioan esaten denaren arabera, Euskal sektore publikoko fundazio dira gutxienez ondoko betekizunetako bat betetzen duten haiek:



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- (i) Euskal sektore publikoak gehiengoz egindako ekarpenarekin, zuzenean nahiz zeharka, eratzea; edo
- (ii) Beren fundazio-ondarea, irauteko asmoz, aipatutako erakundeek % 50etik gora emandako edo utzitako ondasunez edo eskubidez eratuta badago.

Ikus dezagun bereizirik horietako bakoitza:

- (i) euskal sektore publikoak gehiengoz egindako ekarpenarekin, zuzenean nahiz zeharka, eratzea.

HKEEK egindako Inbentarioan bertan aitortu den legez, AIC Fundazioaren hasierako diruzuzkidura honakoa izan zen:

- Bizkaiko Foru Aldundia: 30.000 euro
- Zornotzako Udala: 30.000 euro
- Ermuko Udala: 30.000 euro
- Pribatuak: 180.000 euro
- GUZTIRA: 270.000 euro

Honenbestez, erakunde publikoen ekarpena 90.000 eurokoa izan zen eta entitate pribatuek egindakoa, 180.000 eurokoa; horren arabera, ez da betetzen gehiengoz ekarpena publikoa izateko betekizuna.

- (ii) Beren fundazio-ondarea, irauteko asmoz, aipatutako erakundeek % 50etik gora emandako edo utzitako ondasunez edo eskubidez eratuta egotea.

AIC Fundazioa fundazio publikotzat hartzeak ondarearen osaeraren arabera berarekin dakar HKEEK “irauteko asmoa duen fundazio ondarea” adierazpidea edukiz bete behar izatea eta egiten du, baina oker alderdi honen iritzira, izan ere, kontzeptu hau “ondare garbi” kontzeptuarekin bateratzen du, azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretu bidez onetsitako Kontabilitate Plan Orokorrean (KPO) definitzen dena.

Eta alderdi honek KPO hori AIC Fundazioari ezartzeko inongo eragozpenik ez badu ere (2008ko KPO zuzenean ezar dakieke irabazi asmorik gabeko entitateei, horiek arau lagungarri modura euren sektoreko egokitzapena aplikatzea kaltetu gabe, 1990eko KPOren indarraldian zehar aldarrikatu zena eta hori guztia 1491/2011 Errege Dekretuak, urriaren 24koa, KPO irabazi asmorik gabeko erakundeei egokitzeko arauak onesten dituen, berriki baliogabetu duen arte), badu “kontularitzako ondare garbia” kontzeptua “irauteko asmoa duen fundazio ondarea” kontzeptuarekin identifikatzeari/bateratzeari dagokionez.

Bada, “Kontabilitatearen Esparru Kontzeptualaren urteko kontuen” 4. atala ondare garbiari dagokio honako termino hauetan: “enpresako aktiboen hondar-zatiak, behin pasibo guztiak deduzitu ondoren, pasibo izaerarik ez duten kide edo jabeek egindako ekarpenak barne hartzen ditu, dela eratze unean, edo beranduagoko beste batzuetan, bai eta metatutako emaitzak edo hura eragiten duten bestelako bariazioak ere”.

Ondare garbia osatzen duten kontularitzako kontu-sailak KPOn 3. atalean barne hartutakoak dira, hona hemen:

A-1) Berezko funtsak:

- I. Kapitala



- II. Jaulkipen prima
- III. Erretserbak
- IV. (Berezko ondarean akzioak eta partaidetzak)
- V. Aurreko ekitaldietako emaitzak
- VI. Bazkideen beste ekarpen batzuk
- VII. Ekitaldiaren emaitza
- VIII. (Konturako dibidenduak)
- IX. Ondare garbiaren beste baliabide batzuk

A-2) Balio aldaketagatiko doiketak:

- X. Salmentarako eskura dauden finantza aktiboak
- XI. Estaldura eragiketak
- XII. Bestelakoak

A-3) Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak

Ondare garbia hondarreko kontu-sail modura hartzeak bide ematen du iraungarritasuna eta bermea duten kontu-sailekin batera (kapital soziala edo zenbait erretserba kontu), erabilgarriak, aldakorak eta inondik ere iraunkorrak ez diren beste batzuk izatea.

Inguruabar honetan kokatu behar ditugu, esaterako, ekitaldiaren emaitzak eta balio aldaketagatiko doiketak, zuzenean ondare garbiari egotzitako sarrera eta gastuen emaitza kontuak ordezkatzeko dituztenak, hala nola “salmentarako eskuragarri dauden finantza aktiboen balorazioagatiko doiketak”, “estaldura eragiketak”, “moneta-trukean aldeak”, “aktibo ez arruntetan eta salmentarako gordetako gaien multzo besterengarrietan balorazio-doiketak” eta “hainbat ekitalditan banatzeko diren sarrera fiskalak”.

Kontu-sail horiek guztiak, berezkoa duten izaeraren ondorioz, “izaera iraunkorreko fundazio-ondarea” kontzeptuarekin bat ez datozen kontu-sailak dira eta horien neurketa da, hain zuzen ere, fundazio bati izaera publikoa aitortzeko baliatzen dena.

Eta egia den arren fundazioak arautzen dituen funtsezko zuzenbideak ez duela “izaera iraunkorreko fundazio-ondarea” terminoaren legezko definiziorik ematen, egia da ere oinarritzko zuzenbide horrek berak moldatzen dituela ondare hori osatzen duena uste den horren profilak. Bada, oinarritzko zuzenbidea “fundazio zuzkidura” kontzeptua definitzeaz arduratzen da eta fundazio baten ondarearen osaera mugatzeaz.

Arauzko erreferentzia horietara jo behar da “izaera iraunkorreko fundazio-ondarea” terminoari edukia emateko, izan ere testuinguru honetan egokitzen da ondoen “fundazio zuzkidura” kontzeptua aurreikusitako helburuetara, ezen fundatzaileak edo hirugarrenek hasiera batean ekarritako ondasunak ez ezik, gerora ekarritakoak ere barne hartzen baititu (beti ere, kapital-diru laguntza modura kalifikatu ezin badira), ederki adieraziaz zuzkiduraren atal izan behar dutela edota fundazioaren xedea betetzeari lotuak geratuko direla; horiekin batera barne hartzen ditu ere, Patronatuak fundazioaren xedea betetzeko iraunkortasunez lotzea erabakitzen duen ondasunak ere.



KPOk ondare garbia kontzeptua baliatzea ez da beharrezkoa, ezta bidezkoa ere, ezen aurreko lerroetan adierazi den moduan, bertan fundazio ondarearekin zerikusi txikia edo batere ez duten hainbat kontu-sail barne hartzen baitira eta gainera, fundazioen oinarritzko araudiak behar hainbateko baliabideak ditu “izaera iraunkorreko fundazio-ondarea” terminoaren edukia osatzeko.

Hitz labur, Inbentarioaren arabera fundazio bat Euskal sektore publikoko jotzeko beharrezko diren betekizun aukerakoetarik bat bera ere ez da betetzen eta honenbestez, irizpide horiek AIC Fundazioari ezargarriak liratekeen kasuan ere (eta, berriz diogu, ez direla) ezingo litzateke hau izaera horretako fundazio modura hartu.³

³ El patrimonio neto de la Fundación, por importe de 49 millones de euros, se compone de: subvenciones de capital de la DFB, por 42,2 millones de euros; la cesión de uso por tiempo indefinido de un terreno del Ayuntamiento de Amorebieta, valorada en 6,1 millones de euros; la dotación inicial por 0,3 millones de euros, y los resultados del ejercicio por 0,4 millones de euros.



CENTRO DE INVESTIGACIÓN COOPERATIVA DE ENERGÍAS ALTERNATIVAS FUNDAZIOA (CIC ENERGIGUNE)

V. atalean: FINANTZAKETA PUBLIKOAREN MAILA HANDIA DUTEN FUNDAZIO
PRIBATUAK, honako informazio hau ageri da:

